

Aurrekontuen saltsa

Apirilaren 24an aurtengo aurrekontuari emendakinak aurkezteko epea bukatu zen eta beraz, datorren ostiralean, hilak 18, Udalbatzarrak aztertu beharko du osoko bilkuran, eta onartu ala atzera bota. Dena den, PSE-EEK eta PPK gehiengo osoa dutenez, aldaketak aldatuta, mahaigainean dagoen proposamena aurrera aterako da ziur asko.


Ainhoa Irazu

Aurtengo aurrekontua 34.000 milioi pezetakoa da, hau da, ia zkoak baino 4.000 milioi pezeta gehiago ditu. 7.442 milioi inbertsioetara bideratuko dira (iaz baino 1.500 milioi gehiago). Inbertsioen artean, hainbat hirigintza proiektutarako dirua jarriko da: San Martin merkatua, Miramar jauregia, Victoria Eugenia antzokia, Aquariuma, Araba eta Cristina Enea parkeak, Loiolako, Zubietako eta Igeldoko hirigintza lanak, Atoxako Musika Eskola, Zuhaitziko kiroldegia eta suhiltzaileen parkea, besteak beste.

Aurtengo aurrekontuak, dena den, badu berrikuntzarik. Izan ere, Europako Batasunetik dirulaguntza garrantzitsuak izango dituzten proiektuen berri ematen du: Herrerako, Groseko eta Marrutxipiko kolektore berriak (Feder Fondoak), bidegorri sarea eta Larratxo, Bidebideta eta Herrera hobetzeko egitasmoak (Urban plangintza), besteak beste.

Etxebizitza, kultura eta euskara

Inbertsioetako 7.442 milioietatik 1.500 milioi alokairuan eskaintzeko babes ofi-



Aurtengo udal aurrekontua 34.000 milioi inoguru da.

zialeko etxebizitzak eta 65 urtetik gorakoentzako apartamenduak egiteko erabiliko dira (Ategorrietan, Benta Berrin, Loiolan eta Kontadoresen). Horrez gain, bost urteren buruan etxebizitzaren

alorrean 4.100 milioi pezeta inbertitzea aurreikusi da.

Bestalde, Ongizatean 4.433 milioi, Trafiko, Garraio Publiko eta Herritarren Segurtasunean 5.630 milioi eta Kulturaren 3.526 milioi erabiliko dira.

Euskarari dagokionez, berriz, bideratutako 349 milioietatik 242.442.450 pezeta Euskararen Patronatuak eskuratuko ditu. Diru horretatik 51.574.522 pezeta joan den astean onartutako euskararen normalkuntza egitasmoa sustatzeko bideratuko dira

**Euskararen plana
sustatzeko 50
bat milioi
erabiliko dira**

ALDERDIEN IRITZIA

EAJ-EA Enrique Arana

"Aurrekontu birtuala da"



"201eko aurrekontuak ez du oposizioko alderdi politikoen eta oro har donostiarren partehartzea bultzatu. PP eta PSOE alderdiek ez dituzte ia zeginiko akordioak bete", esan digu Enrike Arana EAKo zinegotziak. Aurrekontuari osoko zuzenketa egin izanaren arrazoiak aipatu dizkigu Aranak: "ez da etorkizunera begira egindako aurrekontua. Ohiko

gastua neurri gabe handitu da. Horrez gain, udal zorra izugarri handituko da. Gainera, ezinbestekoak diren proiektuak ahaztu ditu, autobus geltoki berria, esaterako. Hiria bilakaera orekatua bermatzeko gabezia ugari ditu". EAJ-EA koalizioak 157 emendakin partzial aurkeztu ditu. "Aurrekontuari seriotasuna falta zaio. Hiritarren eskaerei erantzuna eman behar zaie. Gure ustez, Cristina Enea Central Park bihurtzea baino behar handiagoak daude", diosku Aranak. Koalizioak, besteak beste, Euskararen Plan Orokorra gauzatzeko 33 milioi gehiago eskatu ditu.

EH Josetxo Ibazeta

"Elkartasunik gabeko aurrekontua da"

"Aurrekontuak hiria-
ren eta bertako eragile-
en beharrei erantzuteko
eta herritarrei zerbi-
tzuak eskaintzeko tres-
na izan behar luke.
Aurtengo aurrekontua,
aurreko urteetan beza-
laxe, elkartasunik gabe-
ko aurrekontua da",
esan digu Josetxo
Ibazeta EHko zinego-
tziak. EHk, osoko zuzen-
keta ezezik, 315 emen-
dakin partzial ere aur-
keztu ditu. "Gastu
arrunta handitzeak
beste gastuak izoztea
ekarri du, batik bat,
eduki soziala duten pro-
grametan". Ibazetaren
arabera, politika sociala-
ri buruzko azterketa
egin behar da. "Gizarte
bazterketa gainditzeko,
hainbat esparrutan esku

hartu behar da: lana,
emakumea, ingurunea,
gazteria eta abar".
Euskarari dagokionez,
beriz, "euskararen alde
diharduten mugimen-
duak sustatzeko aurre-
kontuak bere horretan
mantendu dira", diosku.
Etxebizitzaren arazoari
begira, hainbat emenda-
kin aukeztu ditu EHk.
"Hutsik dauden etxebizi-
tzei ausardiaz heldu
behar zaie. Neurri
zorrotzak hartu behar
dira, zergak handituta,
adibidez".



Osoko zuzenketa eta emendakinak

PPk eta PSE-EEK aurrekontuaren hitzarmena sinatu zuten martxoaren

**EAJ-EAK eta EHk
osoko zuzenketa
bana eta 472
emendakin
aurkeztu dituzte**

2001eko aurrekontua

Atala	Diru kopurua	Igoera
Aurrekontu osoa	34.000.000.000	%12
Administrazio orokorra	4.444.276.375	%11
Etxebizitza eta hirigintza	6.182.885.508	%15
Ongizatea	4.433.988.845	%16
Kultura	3.526.530.939	%8
Euskara	349.011.977	%13


Euskararen aurrekontua

Esan bezala, aurtengo udal aurrekontuan 349 milioi bideratuko zaizkio Euskara Sailari. Hona hemen diru horrekin bideratuko diren egitasmoetako batzuk.

- Prentsa eskolarra 3.485.000
- Oporretan euskaraz 7.982.500
- Haurrak beti-jolasean 20.073.252
- Hizkuntz-paisala 492.000
- Udal jarduerak euskalduntzeko egitasmoa 1.537.500
- Kultur eta aisialdirako gida 813.902
- Euskararen normalizazio-egitasmoaren sustapena 51.574.522
- Euskara zine-aretoetan 615.000
- Udal-lansiteentzako eta zinegotzientzako ikastaroak 2.955.337
- Euskarazko antzerki-profesionalaren sustapena 3.178.491

1ean. Eztabaida luzeak izan ziren bi alderdion artean adostasuna lortzeko. Desadostasunaren gakoa gastu arrunta eta batik bat pertsonal gastua eta zorra handitzea izan zen. Besteak beste, fun-

**Pertsonal gastua
%20 hazi da**



Aurrekontuari buruzko eztabaida hilaren 18an egingo da.

tzionarien 35 orduko lan astea eta soldaten igoerak direla eta, pertsonal gastua %20 igo da aurtengo aurrekontuan, hau da, guztira 8.028 milioi pezeta bideratuko dira.

Oposizioko alderdi politikoek gogor kritikatu dute gastu arruntaren igoera. Zergei dagokienez, berriz, zaborra tasa %25 handitu da, eta horrek ere zeresan ugari eragin du alderdi politikoaren eta



Kulturarako 3.500 milioi inguru bideratuko dira.

donostiarren artean. Oposizioko alderdi politikoez osoko zuzenketa bana eta 472 emendakin partzial aurkeztu dituzte, 157 EAJ-EA koalizioak eta 315 EHk.

Gizarte taldeen proposamenak

Bestalde, 1999ko abenduan hartutako erabakiaren haritik, elkarteen udal errol-dako 300 taldeek proposamenak egiteko aukera izan dute, Auzo eta Hiritarren Partaidetza Sailaren bitartez.

Dena den, udal agintariak espero baino talde gutxiagoren proposamenak jaso dira. Izan ere, hamabi proposamen sorta besterik ez dituzte jaso. "Ez dira proposa-

men asko, baina herritarrak eta elkarteak aurrekontuan parte hartzeko deitzen ditugun lehen aldia da. Pixkanaka-pixkanaka ohitzen joango direla uste dugu", jakinarazi digute Auzo eta Hiritarren Partaidetza Sailean.

Elkarteei dagokienez, besteak beste, Unicef, Atzegi, Gipuzkoako Kontsumitzaileen Elkarte, Once, Emaus Fundazioa eta Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak proposamenak aurkeztu dituzte. Auzo elkarteen artean, berriz, Herrera, Gros, Loiola, Txomin, Egia, Antigua, Añorga Txiki, Amara Berri eta Uliako auzo elkarte zuzenketak jaso dira, besteak beste.



Aurtengo inbertsioen artean San Martin merkatuaren berrikuntza dago.

ALDERDIEN IRITZIA

PSE-EE Susana Corcuera

"Etxebizitzaren alde apustu egin dugu"



"Aurtengo aurrekontutik etxebizitzaren alde egindako apustua nabarmenduko nuke. Arlo honetan, aurrekontuak bat egiten du gobernu programarekin eta 2003ra arte 5.450 milioi pezetako inbertsioa egitea aurreikusitako da", dio PSE-EEko zinegotziak. Bestalde, kultur eta gizarte arloko plangintzan ahalegin handia egin dela dio, "Gizarte

Ekintza programaren aurrekontua %9 igo da", eta euskarari bideratutako dirua ere hazi dela, "aurten 349 milioi peze-ta bideratuko dira euskararen atalera, iaz baino %15 gehiago". Corcuera esanetan, aurrekontuak oreka bilatu nahi du hirian: "auzo-ei behar bezalako azpiegiturak ematen saiatu gara. Horrez gain, hirugarren milurtekoaren atarian hainbat proiektu garrantzitsu abiaraziko ditugu. Bestetik, ingurugiroaren alde egin dugu: Cristina Enearako ideia lehiaketa, Agenda 21... Hori gutxi balitz, Plan Oro-korra berrikusteko konpromisoa hartu dugu, datozkigun erronkei aurre egin ahal izateko".

PP Carlos Sancho

"Inbertsioa bere horretan mantendu nahi genuen"

"Gastu arrunta asko hazi da, baina hori gastu sozialaren eta pertsonal gastuaren igoeraren ondorio da. Pertsonal gastuaren hazkundera dagokienez, zati bat soldata igoeretan joan da, eta gogoan izan behar dugu PPK igoera horren kontrako botoa eman zuela", diosku Sancho. Zerga altuagoak jartzea beharrezko neurritzat jo du zinegotziak: "gastuak gora egin duenez, zergak igo ditugu. Izan ere, inbertsioa bere horretan mantendu nahi genuen, inbertsioei esker sortutako zerbitzuak donostiar guztientzat baitira". Oposizioko alderdien emendakinei buruz, PP batzuekin ados

dagoela esan du: "esaterako, EAJ-EA koalizioarekin bat egiten dugu luzera begira egindako inbertsioa hobeto planifikatu daitekeela", dio. Azkenik, Sancho ez du uste aurtengo aurrekontuari buruzko erabakia atzeratu izanak egitasmoak ere atzeratuko dituenik.

